



EGILE BERRIENDAKO XXXV. EUSKARAZKO LITERATUR LEHIAKETA. 2025. URTEA

Iruñeko Udalak EGILE BERRIENDAKO 2025eko XXXV. EUSKARAZKO LITERATUR LEHIAKETARAKO deia egiten du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak – 2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 17koan, argitaratua– xedatzen duenarekin bat.

1.- XEDEA

EGILE BERRIENDAKO XXXV. EUSKARAZKO LITERATUR LEHIAKETA. 2025. URTEA:

Sari-deialdi honen xedea da egile berriek euskarazko literatura sor dezaten bultzatu eta sustatzea. Egileek lan bana aurkezten ahalko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librea izanen dute, eta euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak.

2.- SARI-MODALITATEAK.-

Honako sari-modalitate hauek ezarri dira:

1. modalitatea. Poesia:

Modalitate honetan aurkeztutako lanek gutxienez 200 bertso izan beharko dituzte. 2. modalitatea. Narrazioa: Modalitate honetan aurkeztutako lanek gutxienez 15 orri izan beharko dituzte (Arial letra mota, 11 tamainakoa, tarte bikoitzaz).

3.- DIRU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honi, gehienez ere, 9.000 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida hauen kargura: 50/33401/480000

Sari hauek ezarri dira modalitate bakoitzerako, 2. klausulan adierazitakoaren arabera: Lehen saria: 2.500

euro.

Bigarren saria: 1.000 euro.

Hirugarren saria: 500 euro.

Sari horietaz gain, epaimahaiak lau aipamen ematen ahalko ditu, gehienez ere, lau lani, zein modalitatetan aurkeztu diren kontuan hartu gabe. Horiek 250 euroko saria jasoko dute, eta Udalak saritutako lanak argitara emanez gero, horiek ere jasoko dira argitalpenean.

Sariei esleitutako kopuruei dagokien PFEZ atxikipena aplikatuko zaie.

4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-

Lehiaketan parte hartzen ahalko dute nafar egileek edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenek. Egileek beren izenpean literatur liburu bat baino gehiago argitaratu badute, ezin izanen dute lanik aurkeztu. Ez dira muga horren barnean sartuko aldizkarietan, kazetaritza-komunikabideetan edo izaera kolektiboko argitalpenetan argitaratutako parte-hartzeak edo kolaborazioak, ezta literatur lanen itzulpenak ere. Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da.



Lehiaketa honetako aurreko bi ediziotan modalitate berean lehen saria jaso dutenek ezin izanen dute berriz parte hartu modalitate horretan.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta, onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak:

☒ BAI ☐ EZ

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, ZEIN EPETAN ETA NON.-

EGILE BERRIENDAKO XXXV. EUSKARAZKO LITERATUR LEHIAKETAKo izen-ematea online egingen da.

Lanak honako helbide honetara bidali behar dira:

www.pamplonaescultura.es

Webgunearen hasierako orrian esteka bat paratuko da, EGILE BERRIENDAKO XXXV. EUSKARAZKO LITERATUR LEHIAKETA izenburuaz, eta haren bidez zuzenean sar daiteke izena emateko formularioan eta oinarriak kontsultatu.

FORMULARIOA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Formularioa betetzeko, lauki guztiak bete beharko dira, agertzen diren ordenan.

1. Egilearen datuak bete

- Datu pertsonalak
- Jaioteguna eta jaioterria
- Helbidea
- Telefonoa
- Helbide elektronikoa

2. Literatura-modalitatea hautatu (narrazioa edo poesia)

3. Idazlanaren fitxategia igo.

Fitxategi bakarra igo beharko da, PDF formatuan (sistemak ez ditu beste luzapenen bat duten fitxategiak onetsiko, ezta 2MBtik gorakoak ere), honako izen honekin: IDAZLANAREN IZENBURUA.pdf (adibidez, UDABERRIA.pdf). Ezin izanen da inolaz ere aipatu, ez fitxategiaren izenean ez edukian, egilea nor den, ezta haren datu pertsonalik ere.

4. Aurkeztutako idazlanaren egile-izaera baieztatzeko adierazpenean klik egin beharko da, non, halaber, idazlana jatorrizkoa eta argitaragabea dela adieraziko baita.

Formularioa igortzeko, sakatu horretarako gaitu den botoia. Izapide horrek ez du amaitzen izen-ematea. Mezu elektroniko bat bidali zaizula jakinaraziko zaizu, formularioko datuen laburpenarekin, datu pertsonalen atalean emandako helbide elektronikora.

Mezu horretan, aurkeztutako datuekin ados egonez gero, aukera edukiko duzu BALIOZKOTZEKO ETA IZEN-EMATEA BUKATZEKO.

Behin aurrekoa amaitu eta gero, azken mezu bat jasoko duzu, honako hauekin: lehiaketan parte hartzearen BAIEZTAPENA, idazlanaren IZENBURUA, IDENTIFIKAZIO-AGIRIA eta lehiaketan erreferentzia izanen duen PLIKA-ZENBAKIA. Mezu hori izanen da lehiaketan parte hartzeko egiaztagiria.

Lehiaketaren plataformara igotako idazlanak Udalaren zerbitzarian egonon dira, lehiaketaren azken fasea amaitu arte. Gero, sistematik baztertuko dituzte, salbu eta saritutako lanak, zeinak publikoak izan gabe ere, Iruñeko Udalaren artxibo digitalean gordeko baitira.

Halaber, honako toki hauetan egiten ahalko da lehiaketarako izen-ematea eta lanen aurkezpena: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia - Kale Nagusia 2, behea) edo erregistro osagarrietan (Descalzos k. 72, 2. solairua; Iratxeko Monasterioaren k. 2, behea; Armada etorbidea 2, 5. solairua; Zapateria k. 40, behea). Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da

Kasu honetan, interesdunek gutun-azal itxi bat aurkeztuko dute, eta haren barruan, lanaren kopia bat. Gutun-azalaren kanpoko aldean, honako testu hau idatzi behar da:

- Egile berriendako euskarazko literatur lehiaketa
- Modalitatea: (dagokion modalitatea adierazi)
- Lanaren izenburua: (lanaren izenburua adierazi)

Gutun-azal horren barnean, beste gutun-azal bat sartuko da, itxita eta kanpoaldean lanaren izenburua idatzita eramanen duena, eta horren barnean, orri bat, egilearen datu pertsonal hauek adierazita: izen-abizenak, jaiotze-data eta jaioterria, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa, horiek guztiak lanaren egileari dagozkionak. Baldin eta lan batean ez badira egilearen datuak behar bezala ematen, lana ezin izanen da lehiaketan onartu.

Iruñeko Udalak bermatzen du datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudia beteko duela, zeina Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotzen baita. Orobat, pertsona fisikoen babesari dagokionez, 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoa beteko da.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera eta parte-hartzaile guztien anonimotasuna bermatze aldera, baztertu egin da lanak Iruñeko Udalaren edo beste administrazioen erregistro elektronikoen bidez aurkezteko aukera.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako bideetako edozein erabiltzen ahalko da.

Lanak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera hasiko da, eta 2025eko urriaren 27an amaituko.

Saririk lortzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, jaso ez diren lanak suntsitzen ahalko ditu Udalak, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

6.- EPAIMAHAIIA.-

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Batzordeburua: Kulturako zinegotzi ordezkaria, edo horrek eskuordetutako pertsona.
- Epaimahaikideak: Hiru literatur aditu/ izendatzen diren beste aditu batzuk.
- Idazkaria: Iruñeko Udaleko euskarazko kultur programazioko teknikaria/ Udaleko alor bereko beste teknikari bat.

Epaimahaiko gainerako kide titularren eta ordezkoen izendapen zehatza organo emailearen ebazpen bidez onetsiko da haien nortasuna jakin ondoren, eta publizitatea emanen zaio.

Saria emateko proposamena organo eskudunari aurkeztuko zaio, hau da, Iruñeko Udaleko Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko zinegotzi ordezkariari, sariak ematearen gaineko ebazpena eman dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera: ☒ BAI ☐ EZ

Epaimahaiak eman gabe uzten ahalko ditu aurreikusitako sariak oro edo horietako batzuk.

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da



Epaimahaiak hala erabakitzen badu, sariak ex-aequo ematen ahalko zaizkie hainbat lani, halako eran non saria egile horien artean hainbanatuko baita.

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-

Iruñeko Udalak du ardura botere publikoez baliatuz dirulaguntzak kudeatzeko eta sariak emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalen gaine. Ez da daturik lagako, legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es/eu webgunean kontsultatzen ahal dituzu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratzen ahalko dira, eta komunikabideek ere zabaltzen ahalko dituzte.

8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa dirulaguntza hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu: Baiezkoa bada, non argitaratu:

- Iruñeko Udaleko Egoitza Elektronikoa.
- Dirulaguntzen datu-base nazionalari jakinaraziko zaio, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 20. artikularekin bat.

9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-

Saria ordainduta, Iruñeko Udalak egilearengandik eskuratuko du saritutako obra argitaratzeko aukera, berarendako bakarrik eta lehiaketaren epaia onesten duen udal-ebazpena noiz eman eta hurrengo bi urteetarako. Eskubidea izanen du, baita ere, lana gaur ezaguna den edo geroan asma daitekeen beste edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzkotan aurkezteko. Horrek barne hartzen ditu ustiatzeko modalitateak oro, hau da, lana edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzekoa, eta horien artean, bereziki, liburu batean edo euskarri digital edo zenbakizkoan edizioa egitekoa, baita lana banatzeko eta jendaurrean paratzeko eskubideak ere, mundu osoko merkatuan ustiatzeari begira. Eskubide horien artean, berariaz daude sarturik hala lanak online igorri eta zabaltzea nola Interneten erako sare digital elkarreragileetan eskura jartzea.

10.- ERREKURTSOAK.-

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar beren lanekin parte hartzen dutenek oinarriak onartu eta horiei men egitea.

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatzen ahal da



Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazka oro organo emaileak ebatziko ditu.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeako errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.